# 2021eko egutegi fiskala

Hona hemen, 2021eko egutegi fiskala, hau da, zorren aldizkako ordainketa muga barruan borondatez ordaintzeko epeak.

>> **Helbideratutako ordainagiriak** zuzenean kargatuko dira banketxe edo aurrezki kutxetako baimendutako kontuetan.

>> **Ordainagiria helbideratu gabe dutenei** zorra ordaintzeko agiria bidaliko zaie posta arruntez zordunen helbide fiskalera.

>> **Aipatutako agiria ez bada jasotzen,** ordainketa egin nahi duenak agiri hori eskatu beharko du borondatez ordaintzeko epean udaletxeko diruzaintza zerbitzuan.

>> **Ordaintzeko lekuak:** ordainketa banketxe laguntzaileen edozein bulegotan edo kutxazainetan egin ahal izango da: Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco Santander eta Caja Rural de Navarra.

>> **Banku-helbideratzea:** ordainketa helbideratzeko azken eguna borondatez ordaintzeko epea hasten den aurreko hilabetearen 15a izango da; Ondasun Higiezinei buruzko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren kasuan izan ezik, horientzako azken eguna Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritakoa izango baita.

>> **Ordaintzeko epea igarota ordainketarik egin gabe,** zorrak premiamendu-bidez eskatuko dira eta dagozkion errekarguak eta berandutze interesak sortuko ditu exekuzio epean, eta, hala badagokio, egon daitezkeen kostuak ere ordaindu beharko dira.

**Informazio gehiago:**

> Zerga-bilketa zerbitzuan
> 943 71 44 07
> zergabiltzailea@eskoriatza.eus

| KONTZEPTUA | ALDIA | BORONDATEZ ORDAINTZEKO EPEA | HELBIDERATUTA |
|---|---|---|---|
| IBILGAILUAK | 2021 | 2021/03/05 2021/04/06 | 2021/04/06 |
| HONDAKINAK | 1. SEIHILABETEA | 2021/04/06 2021/05/07 | 2021/05/07 |
| IBIAK | 2021 | 2021/05/03 2021/06/11 | 2021/06/11 |
| OHZ | 2021 | 2021/05/14 2021/07/05 | 2021/07/05 |
| MAHAIAK ETA AULKIAK | 2021 | EZ DA KOBRATUKO | EZ DA KOBRATUKO |
| HONDAKINAK | 2. SEIHILABETEA | 2021/08/06 2021/10/05 | 2021/10/05 |
| TB ANTENA | 2021 | 2021/10/08 2021/12/03 | 2021/12/03 |